

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Gure diru-sarrerak lortu ahal izateko, ezinbestekoa izango zaigu Gobernuaren eta Garraiobide enpresen kolaborazioa. Horrez gain, beste hainbat baliabide hartu behar ditugu kontuan.

Baliabide fisikoei dagokionez, gure enpresak behar duen bakarra sentsoreak eta GPS aparatuak dira, hau da, garraiobideetan zuzenki instalatzeko materiala. Gure produktua orokortasun batean fisikoa ez den hortan, ez dugu gauza gehiegi behar atal hontan.

Baliabide intelektualei eta giza baliabideei dagokionez, imaginazioa behar duen pertsona bat behar da aplikazioa diseinatzeko, guk nahi dugun imagina eduki dezan. Gainera, negozio bat eramaten jakin beharko dugu, baita finantzak kontrolatzen ere. Finantzak eraman ahal izateko, garrantzitsua da ekonomista talde jakintsu batekin lan egitea.

Azkenik, finantziei dagokionez, hasiera batean aplikazioa sortzeko beharko dugun dirua laguntzetatik jasotzen saiatuko gara, eta ezinezkoa izango balitz agian bankuan laguntza eskatu beharko genuke, geroago bueltatuko dieguna.

